# IRAGARKIA

**TEKNIKARI JURIDIKO IZATEKO 2 LANPOSTU BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA**

Erakunde honen 2023ko Lan Eskaintza Publikoan sartuta dauden teknikari juridiko izateko 2 lanpostu betetzeko hautaketa prozesua koordinatzeko izendatutako epaimahai kalifikatzaileak, 2025eko irailaren 15ean egindako bileran, honako hau erabaki du:

- Lehen ariketari dagokion jarraibideen zerrenda argitaratzea. 2025eko irailaren 17an egingo da, 11:00etan, Bilbao Arena Kirol Jauregian.
- Bilbao Arenako Kirol Jauregiaren planoa argitaratzea, zonen arabera banatuta,eta hautagaiak eremu bakoitzean abizenen arabera ordenatuta kokatzea.
- Bigarren ariketaren lehen zatiko erantzun-orriaren eredua argitaratzea
- Lehen ariketaren bigarren zatia zuzentzeko irizpideak argitaratzea

Bilbo, 2025eko irailaren 15a.- Epaimahai Kalifikatzailea.

# JARRAIBIDE-ORRIA

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Garrantzitsuak dira ariketa behar bezala egiteko.

**EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.**

- Probak egin bitartean, ikusgai izan behar duzu NANa edo AIZa, mahai gainean. **Ezin daiteke mugikorrik izan piztuta —ezta hegaldi-moduan ere—, nahiz eta gordeta egon. Ezta transmisore edo hartzaile gisa erabili daitekeen edozein elementu ere.** Hori antzemateak arau-hauslea berehala kanporatzea dakar. Emisio erradioelektrikoak antzemateko sistemak erabiltzeko aukeraz ohartarazten da.
- Instalazioan **erloju bat dago erraz ikusi daitekeen leku batean**.
- Proba egin bitartean, **erabateko isiltasuna** gorde behar da. Desegoki jokatzeak edo besteekiko jokaera gogaikarria izateak azterketa-gelatik kanporatzea ekarriko du.
- Ariketa egiteko denbora amaitutakoan, ERANTZUN-ORRIAK jasoko dira. **Zure lekuan egon abisua eman arte.**
- Probak boligrafo urdinaz edo beltz ezabaezinaz egingo dira, gel-motakoak saihestuko dira, eta erabat debekatuta egongo da boligrafo ezabagarriak erabiltzea.
- **Ariketa hasteko edo amaitzeko jarraibideak ez betetzeak proba ez zuzentzea dakar.**

## Lehenengo ariketaren LEHENENGO ZATIA

- Mahai gainean, jarraibide-orri honetaz gain, hauek izan behar dituzu:
  - Ariketa egiteko **ERANTZUN-ORRI** bat (irakurri arretaz atzeko aldean jaso den erantzun okerrak zuzentzeko moduari buruzko azalpena). Falta bazaizu, zaintzaile bati eskatu.
- Erantzun-orria bikoitza da: bata zuria da, eta bestea horia. Ez banatu orriok azterketa amaitu arte. Ariketa amaitu ondoren, ezkerreko aldeko puntu-ilaratik tolestu eta hegaletik tiratu eta banandu; orri zuria bakarrik entregatuko duzu, bestea, horia, zuretzat gorde.
- Oso garrantzitsua da borobiltxoak ondo markatzea, **ERANTZUN-ORRIAN BERTAN ESATEN DEN ERARA**, hau da, **gune osoa bete eta ilundu behar da**. Ez egin, bada, ez ixarik (x), ez biribilik. Puntu edo marka txikiak ere hautatutako erantzun bezala irakur daitezke.
- Agintzen denean, bete itzazu erantzun-orriko buruan eskatutako datuak: **izena, abizenak, sinadura eta NAN zenbakia**. NANa idazteko, zenbakiak eta markak erabili behar dituzu. AIZ baduzu, “NAN/DNI” atala bete zure AIZ zenbakiarekin; ez jarri letrarik eta lehenengo zifra “0” izan beharko da.
- Galdera bakoitzak **lau erantzun ditu aukeran**: a), b), c) eta d). Erantzun zuzen bakarra dago galdera bakoitzeko. Galdera eta aukerako lau erantzunak irakurri ondoren, erantzun-orrian jarri behar duzu zein den erantzun zuzena.
- Azterketa egiten ari zaren bitartean, nahi baduzu, erantzunen beste orri bat eska dezakezu, baina gogoan izan **ez duzula denbora gehigarririk izango.**
- Azterketak **60 galdera izango ditu (50 galdera gehi erreserbako 10)**. Azken 10 galderak ordezkoak dira eta soilik hartuko dira kontuan aurreko 50 galderetakoren bat baliogabetzen bada. Hala ere, zuk 60 galderak erantzuten saiatu behar duzu. Probaren iraupena **ordubetekoa** izango da.
- Lehenengo zatiak **0,00 eta 5,00 puntu bitarteko balioa** izango du.
- Honela kalkulatuko da ariketa honen puntuazioa:

Erantzun zuzen bakoitza 1 punturekin baloratuko da, eta erantzun oker bakoitza –0,33 punturekin zigortuko da; beraz, zuzenean lor daitekeen gehieneko puntuazioa 50 puntukoa izango da, hau da, azken puntuazioko 5 puntu. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.

Edozein erantzun zuzen baliogabetzeko, jarraitu erantzun-orriaren atzealdean dauden jarraibideei.

– Adierazitako ordua baino lehenago amaitzen baduzu azterketa, atera ezazu erantzunen orriko kopia horia, zeuretzat da-eta; altxatu eskua eta eman kopia zuria zaintzaileari. Ariketa amaitu arren, **ezin izango zara lekutik mugitu.**

– Lehenengo eta bigarren proben artean 30 minutuko atsedenaldia egingo da. Gelatik irten ahal izango zara.

– **GARRANTZITSUA: 30 minutu igaro ondoren, gelara itzuli behar zarete. Lehenengo ariketaren bigarren zatia hasiko da, eta hautagai bat ere ezin izango da gelara sartu lehenengo ariketaren bigarren zatia hasi ondoren.**

## Lehenengo ariketaren BIGARREN ZATIA

– Mahai gainean, NANaz, idazteko tresnez eta jarraibide-orri honetaz gain, hauek eduki behar dituzu:
  - Gutun-azal handi bat
  - Gutun-azal txiki bat
  - Zure identifikazio-datuak sartzeko fitxa bat
  - 1. eranskinaren II. zatiko (“Gai espezifikoak”) kopia bat eta erantzunen koadernotxoa.

– Proba honen zuzenketa anonimoa da eta, beraz, **ez da inolako identifikazio pertsonalik jaso behar azterketa-orrietan**.

EZ SINATU EZER, ETA EZ IDATZI IZEN-ABIZENAK GUTUN-AZAL TXIKI ETA HANDIETAN.
EZ SINATU EZER, ETA EZ IDATZI IZEN-ABIZENAK PROBA EGITEKO ORRIETAN.

– Idatzi kartulinazko fitxan zure datu pertsonalak eta hautatzen ari zaren lanpostua. **EPAIMAHAIAK HALA ESATEN DIZUNEAN**, kartulina sinatu eta gutun-azal txikian sartu, daukan itsasgarriarekin itxi eta gutun-azal handian sartu, zabalik egon behar dena proba osoa amaitu arte.

– Proba honetan idatziz garatu beharko dira epaimahaiak II. zatitik (“Gai espezifikoak”) proposatutako hiru gaietako bi. Ariketaren aurretik, epaimahaiak zoriz aukeratuko ditu gaiak. Gehienez ordubete izango duzu ariketa egiteko.

– Behar adina orri emango zaizkio. Errespetatu, mesedez, orrien marjinak

- Hauek dira zuzentzeko eta puntuak emateko irizpide orokorrak:

| BALORAZIO-IRIZPIDEAK | IRIZPIDEAREN DESKRIBAPENA | HAZTAPENA (% 100) |
|---|---|---|
| 1. Gaia testuinguruan jartzea | Deskribapen orokorra egitea, edukia esparru tematiko, funtzional eta juridiko baten barruan kokatuta. | % 10 |
| 2. Gaiaren ezagutza | Ebaluatutako gaiaren ezagutza espezifikoak ulertzea, menderatzea eta azaltzen jakitea. | % 30 |
| 3. Azalpen argiak ematea | Ideiak modu zehatz, ordenatu eta ulergarrian transmititzeko gaitasuna izatea, hartzaileak edukia inolako anbiguotasun edo errakuntzarik gabe ulertzeko moduan. | % 10 |
| 4. Koherentzia | Gaia modu ulergarrian, sendoan eta sinesgarrian garatzea, eta interpretazioa zaildu dezaketen kontraesanak edo gaien arteko jauziak saihestea. | % 10 |
| 5. Gaia zehaztasunez azaltzea | Informazioa modu zehatzean, zorrotzean eta anbiguotasunik gabe emateko gaitasuna izatea, eta ebaluatu beharreko edukira zintzoki egokitzea. | % 10 |
| 6. Hautatutako gaiari lotutako kontzeptu eta termino tekniko egokiak erabiltzea. | Ebaluatutako gaiaren arloko hizkuntza espezializatua behar bezala erabiltzeko gaitasuna izatea. | % 20 |
| 7. Azalpenak labur emateko gaitasuna | Gai baten funtsezko elementuak hautatzeko, antolatzeko eta adierazteko gaitasuna izatea, erredundantziak, digresioak edo garrantzirik gabeko informazioa saihestuta, eta diskurtsoaren argitasuna eta zentzu logikoa mantenduta. | % 10 |

- Bigarren zatiak **0,00 eta 15,00 puntu bitarteko balioa** izango du.

**<u>OSO GARRANTZITSUA:</u>**

Lehenengo ariketa (lehenengo zatia eta bigarren zatia) **<u>kalifikatzeko 0 eta 20 puntu</u>** artean emango dira, eta automatikoki baztertuak izango dira gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Bilbao Etxebizitzak
Viviendas Municipales



**BILBAO ARENA KIROL JAUREGIAREN PLANOA, Askatasuna kalea 13, Bilbo (Bizkaia)**



## ZONA BAKOITZEKO HAUTAGAIAK ABIZENAREN ARABERA

**1. ZONA:**

Aboitiz López, Patricia hautagaitik Castaño Castaño, Carlos hautagaira.

**2. ZONA:**

Corral Martínez, Estibaliz hautagaitik Ibarrondo Rodríguez, Luis hautagaira.

**3. ZONA:**

Idirin Merino, Ainhoatik Parra Aresti, Estibaliz hautagaira

**4. ZONA:**

Pascual Elexpe, Mikel hautagaitik Zituaga Huidobro, Nagore hautagaira

**Bilbao Etxebizitzak**
Viviendas Municipales

DEIALDIA: TEKNIKARI JURIDIKOKO BI (2) LANPOSTU
EPE: 2023

## ERANTZUN-ORRIAREN EREDUA




| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 21 | 41 | 61 | 81 |
| 2 | 22 | 42 | 62 | 82 |
| 3 | 23 | 43 | 63 | 83 |
| 4 | 24 | 44 | 64 | 84 |
| 5 | 25 | 45 | 65 | 85 |
| 6 | 26 | 46 | 66 | 86 |
| 7 | 27 | 47 | 67 | 87 |
| 8 | 28 | 48 | 68 | 88 |
| 9 | 29 | 49 | 69 | 89 |
| 10 | 30 | 50 | 70 | 90 |
| 11 | 31 | 51 | 71 | 91 |
| 12 | 32 | 52 | 72 | 92 |
| 13 | 33 | 53 | 73 | 93 |
| 14 | 34 | 54 | 74 | 94 |
| 15 | 35 | 55 | 75 | 95 |
| 16 | 36 | 56 | 76 | 96 |
| 17 | 37 | 57 | 77 | 97 |
| 18 | 38 | 58 | 78 | 98 |
| 19 | 39 | 59 | 79 | 99 |
| 20 | 40 | 60 | 80 | 100 |

## AZTERKETA ORRIA NOLA BETE

IRAKUR ITZAZU ORRI HONETAN EMATEN ZAIZKIZUN OHARRAK ETA **ITXARON EZAZU,** MESEDEZ, ZURE GELAKO AZTERTZAILEAK AZALPENAK EMATEN HASI ARTE.

Erantzun-orri hau ordenagailu batek zuzenduko du. Oso garrantzitsua da, beraz, bertan idatziko dituzun datuak garbi eta okerrik egin gabe jartzea.

Azterketa egiten hasi baino lehen bete behar dituzu eskatzen zaizkizun datuak zure gelako aztertzaileak esaten duenean.

## *FORMA DE CUMPLIMENTAR LA HOJA DE EXAMEN*

*LEA LAS INSTRUCCIONES QUE SE DAN EN ESTA HOJA Y **ESPERE** POR FAVOR HASTA QUE EL EXAMINADOR DE SU AULA DÉ LAS EXPLICACIONES.*

*Esta hoja será corregida por un ordenador. Por lo tanto es muy importante que rellene los datos que se le solicitan de forma clara y sin errores.*

*Tiene que rellenar los datos que se le piden antes del comienzo de la prueba, cuando lo indique el examinador correspondiente a su aula.*

### Ez idatzi ezer aztertzaileak esan arte

### *No escriba nada hasta que lo indique el personal examinador*

**Erantzun-orriaren goialdean, eskuinean, zure NAN zenbakia idatzi eta markatu behar duzu, ondorengo adibideetan ikus dezakezun bezala:**

***En la parte superior derecha de la hoja de respuestas debe figurar su número de DNI como se refleja en los ejemplos siguientes:***

N.A.N. / *D.N.I.*: 14922318







N.A.N. / *D.N.I.*: 423188




## ERANTZUNETARAKO ALDEA

Zure aukera jartzeko, goiko ilaran aukerari dagokion laukitxoa beltzu. Oraingoan, C Aukera hartu dugu (begiratu arretaz adibidea).




Begiratu aurreko aukera nola baliogabetzen den eta beste erantzun bat nola jartzen den. C Aukera balio gabetu egiten dugu eta A Aukera hartzen dugu (begiratu arretaz adibidea).




**OHARRA: KASU HAUEK ADIBIDEAK DIRA, BERAZ, EZ IDATZI HORIEK ZURE AZTERKETA ORRIAN.**

## *ZONA DE RESPUESTAS*

*Rellene la casilla correspondiente a su elección en la fila superior. En este caso hemos elegido la Opción C (observe el ejemplo).*




*Vea cómo se anula la elección anterior y se contesta una nueva. Se anula la Opción C y se elige la Opción A (observe el ejemplo).*




***NOTA: RECUERDE QUE ESTOS SON EJEMPLOS Y EN NINGÚN CASO TRANSCRIBA LOS MISMOS A SU HOJA DE RESPUESTAS.***